Ordiziako Udala

2025ITGB0013

Ordizian, **2025eko uztailaren 17an** , Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA,** honakoak bertaratu direlarik:

*En Ordizia, siendo el día **17 de julio del 2025** se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en con la asistencia de las siguientes personas:*

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA**

Adur Ezenarro Agirre

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK**

Jon Ander Caballero Zubelzu (EH BILDU ORDIZIA)
Joseba Aranburu Ganzarain (EAJ-PNV)
Viviana Angélica Murillo Cazar (ORDIZIA ORAIN-ELKARREKIN PODEMOS)
Ana Mª Sánchez Herráez (GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA)

**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

Ainhoa Jimenez Goñi (EH BILDU ORDIZIA)

**IDAZKARIA**

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

**AZTERTUTAKO GAIAK**

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

1.- Ekainak 5eko ohiko bilkurako akta onatzea

.- Ekainak 26ko ohiko bilkurako akta onatzea

2.- Maitane Alvarez Garciandia alkateorde eta Tokiko Gobernu Batzordeko kidearen ordezkapenaren berri ematea (2025/1258 Dekretua)

3.- Ordiziako Udalak Etxebideko eta Biziguneko babes ofizialeko etxebizitzen zuzeneko esleipenak eskatzeko irizpideak (2025PGAI0025)

4.- Ekaineko kudeaketa txostenak (2025A0010012)

***ASUNTOS TRATADOS***

***ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:***

*1.- Aprobación de acta de la sesión ordinaria celebrada el 5 de junio. y 26 de junio*

*.- Aprobación de acta de la sesión ordinaria celebrada el 26 de junio*

*2.- Dar cuenta de la sustitución de Maitane Alvarez Garciandia, teniente alcalde y miembro de la Junta de Gobierno Local (Decreto 2025/1258)*

*3.- Criterios para la solicitud de adjudicaciones directas por parte del Ayuntamiento de Ordizia de las viviendas de protección oficial de Etxebide y Bizigune (2025PGAI0025)*

*4.- Informes de gestión de junio (2025A0010012)*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

5.- Zenbait txosten eta eskaera — *5.- Informes y solicitudes varias*

6.- Galde erreguak

**GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:**

**<u>ORDUTEGIA</u>**

**HASIERA ORDUA: 15:45etan** **AMAIERA ORDUA:16:09 etan**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1.1-2025eko ekainak 5eko bilkurako akta onartzea.**

***1.1- Aprobación del acta de la sesión de fecha 5 de junio del 2025***

Proposamena

*Propuesta*

**2025eko ekainak 5eko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

***Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 5 de junio del 2025***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 3 (EH BILDU ORDIZIA 1, EAJ-PNV 1, GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

**15:48etan Viviana Angélica Murillo gehitzen da batzordera**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du

**1.2-2025eko ekainak 26ko bilkurako akta onartzea.**

***1.2- Aprobación del acta de la sesión de fecha 26 de junio del 2025***

Proposamena

*Propuesta*

**2025eko ekainak 26ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

***Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 26 de junio del 2025***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 4 (EH BILDU ORDIZIA 1, EAJ-PNV 1, ORDIZIA ORAIN - ELKARREKIN PODEMOS 1, GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**2.- Maitane Alvarez Garciandia alkateorde eta Tokiko Gobernu Batzordeko kidearen ordezkapenaren berri ematea (2025/1258 Dekretua)**

***2.- Dar cuenta de la sustitución de Maitane Alvarez Garciandia, teniente alcalde y miembro de la Junta de Gobierno Local (Decreto 2025/1258)***

**2025/1258. DEKRETUA**

***DECRETO Nº 2025/1258***

**HONAKO HAU IKUSITA:**

***A LA VISTA DE:***

**LEHENENGOA:** 2023ko uztailaren 5eko 2023/0923 Alkate Dekretu bidez Maitane Alvarez Garciandia Udal honetako Lehenengo Alkateordea izendatua izan zen

***PRIMERO:*** *Que mediante Decreto de Alcaldía 2023/0923, de 5 de julio, Maitane Alvarez Garciandia, fue nombrada Primera teniente de alcalde de este Ayuntamiento*

**BIGARRENA:** Maitane Alvarez Garciandia Lehenengo Alkateordearen baja eta baimen egoerak 2025eko uztailaren 14tik aurrerako ondorioekin.

***SEGUNDO:*** *La situación de baja y permiso de la primera teniente de alcalde, Maitane Álvarez Garciandia, con efectos desde el 14 de julio de025.*

Arestian adierazitakoa kontuan izanik, idatziarekin batera aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean eta horrekin bat egonik, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluak ematen dizkidan eskumenez baliatuta, ondorengoa

*A la vista de lo que antecede, examinada la documentación que la acompaña y de conformidad con la misma en uso de las atribuciones que me están legalmente conferidas en virtud del artículo 21.1 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local, por medio de la presente*

**HONAKO HAU ERABAKI DUT:**

***TENGO A BIEN:***


Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

**LEHENENGOA:** Jon Ander Caballero Zubelzu zinegotzia Tokiko Gobernu Batzordeko kide eta Lehen Alkateorde izendatzea, Udal honetako Lenengo Alkateordetzari dagokion eskumenak eta funtzioak egin ditzan, Lehehengo Alkateordea Maitane Alvarez Garciandia, eta baimen egoeran dagoen bitartean, hau da, 2025eko uztailaren 14tik, berriro lanean hasi arte.

***PRIMERO:*** *Nombrar a Jon Ander Caballero Zubelzu miembro de la Junta de Gobierno Local y Primer Teniente de Alcalde, para el ejercicio de las competencias y funciones que corresponden a la Tenencia de Alcaldía de este Ayuntamiento, en tanto en cuanto la Primera Teniente de Alcalde, Maitane Alvarez Garciandia, permanezca en situación de baja y permiso, es decir, desde el 14 de julio de 2025 hasta su incorporación.*

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri emango zaie, jakin dezaten eta ondorioak sortzeko, interesatuei eta udaleko sail eta azpisail desberdinei.

***SEGUNDO****. - Notificar la presente resolución a las y los interesados y a las diferentes áreas y subáreas municipales para su conocimiento y efectos.*

**HIRUGARRENA**.- Ebazpen hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean.

***TERCERO:*** *Publicar la presente resolución, tanto en el Boletín Oficial de Gipuzkoa como en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento*

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Alkateak adierazten du Maitane jada ez dela lanean, eta bere ordezkapena Jon Ander Caballerok egingo duela. Dakizuen bezala lehengo alkateordea ere bada Maitane, eta legez adierazten denari jarriki, alkateorde izateko Tokiko Gobernu Batzordeko kidea izan behar da. Hori dela eta, Jon Ander Tokiko Gobernu kide izendatzen da, eta modu berean lehen alkateorde ere izendatzen da Maitane itzuli bitartean.

*El alcalde indica que Maitane ya está de baja, y que su relevo lo hará Jon Ander Caballero. Como sabéis, Maitane es también primer teniente de alcalde, y de acuerdo con lo que legalmente se indica, para ser teniente de alcalde hay que ser miembro de la Junta de Gobierno Local. Por ello, se nombra a Jon Ander miembro del Gobierno Local, y de la misma manera se le nombra primer teniente de alcalde hasta el regreso de Maitane. .*

**Beraz Tokiko Gobernu Batzordeari jakinaren gainean geratu da**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.- Ordiziako Udalak Etxebideko eta Biziguneko babes ofizialeko etxebizitzen zuzeneko esleipenak eskatzeko irizpideak (2025PGAI0025)**

- **LEGE-ESPARRUA:**

- Martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 12. Artikulua
- 2012ko urriaren 15eko Agindua.
- 191/2013 Dekretua, apirilaren 9koa.

- **ESLEIPEN ZUZENERAKO PROZEDURAREN EZAUGARRIAK**

  - Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak salbuetsi ahal izango ditu (ez da betebehar bat) etxebizitza esleitzeko prozedura orokorretik edo arruntetik honako hauek:

• Terrorismoaren biktimak, genero-indarkeriaren biktimak eta eremu degradatuetako jarduera-eremuetako bizilagunak, hau da, horiek arautzen dituen araudian jasotakoak, bai eta ***etxebizitza-premia bereziko egoeran dauden beste kolektibo batzuk*** *ere*, baldin eta kolektibo horiek indarrean dagoen sektore-araudiak definitu baditu, betiere premia hori etxebizitzarekin lotuta badago eta kolektibo horien eskubideak babesteko eskumena duen erakundeak egiaztatzen badu.

• Administrazio publikoak, birgaitzeko hirigintza-sozietateak eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak.

- Administrazioak (*Ordiziako Udala*) behar bezala justifikatuta aukeratutako interesdunak egingo du esleipena.
- Prozedura hori erakunde publiko batek (udalak edo aldundiak) baino ezin du hasi, bere gizarte-zerbitzuen bidez **gizarte-**

***3.- Criterios para la solicitud de adjudicaciones directas por parte del Ayuntamiento de Ordizia de las viviendas de protección oficial de Etxebide y Bizigune (2025PGAI0025)***

- ***MARCO LEGAL****:*

*- Artículo 12 del Decreto 39/2008, de 4 de marzo.*
*- Orden de 15 de octubre de 2012.*
*- Decreto 191/2013, de 9 de abril.*

- ***CARACTERÍSTICAS DEL PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN DIRECTA***

*- El Departamento de Empleo y Políticas Sociales podrá exceptuar (no es una obligación) del procedimiento general u ordinario de adjudicación de vivienda a:*

*• Las víctimas del terrorismo, las víctimas de la violencia de género y los vecinos y vecinas de las áreas de actuación de las zonas degradadas, es decir, las recogidas en la normativa que las regula, así como* **otros colectivos en situación de especial necesidad de vivienda** *que hayan sido definidos por la normativa sectorial vigente, siempre que dicha necesidad esté relacionada con la vivienda y sea acreditada por la institución competente para la protección de los derechos de estos colectivos.*

*• Administraciones públicas, sociedades urbanísticas de rehabilitación y entidades privadas sin ánimo de lucro.*

*- La adjudicación se realizará por el interesado seleccionado debidamente justificado por la Administración (Ayuntamiento de Ordizia).*

*- Este procedimiento sólo puede iniciarlo una institución pública (ayuntamiento o diputación) que conozca a través de sus*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

**bazterkeria jasateko arriskuan** dagoen profil hori duen bizikidetza-unitate bat ezagutzen duenean.

- **UDALAK BALORATU DITZAKEN KASUAK**

- **Etxebizitza-premia bereziko egoeran dauden kolektiboak:**

Etxebizitza-premia berezia duten bizikidetza-unitateak, horien titularretako bat gutxienez honako kolektibo hauetako kide denean:

- ✓ adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonak
- ✓ gaixotasun mentala duten pertsonak
- ✓ guraso bakarreko familiak
- ✓ genero-indarkeriaren biktimak (aparteko prozedura darama)
- ✓ legez dibortziatuak edo bananduak

Erakundeak (udalak) aurkeztu behar ditu:

- Ordezkari politikoaren eskaera (Alkatea edo Ongizate Saileko zinegotzia)
- Gizarte zerbitzuen txostena: bizikidetza-unitatearen egoera ekonomiko, sozial eta laboralaren deskribapen zehatza, egiten ari den esku-hartze plana eta azaldutako guztia egiaztatzen duen dokumentazioa. Nolanahi ere, dagokion aldundiak emandako titulartasun edo ondasunen ziurtagiria (saldoak, etekinak, higiezinak...), egungo diru-sarrerak, errentamendu-kontratuaren kopia eta, hala badagokio, ordainagiria erantsi behar dira. **<u>Gizarte-bazterkeriari buruzko balorazio</u>**

*servicios sociales una unidad de convivencia con este **perfil en riesgo de exclusión social.***

- ***<u>CASOS VALORABLES POR EL AYUNTAMIENTO</u>***

*- **Colectivos en situación de especial necesidad de vivienda**:*

*Unidades convivenciales con especial necesidad de vivienda, cuyos titulares pertenezcan al menos a los siguientes colectivos:*

- ✓ *personas con discapacidad intelectual y del desarrollo*
- ✓ *personas con enfermedad mental*
- ✓ *familias monoparentales*
- ✓ *víctimas de violencia de género (con procedimiento extraordinario)*
- ✓ *divorciados o separados legalmente.*

*La entidad (Ayuntamiento) debe presentar:*

*- Petición de representante político (alcalde o concejal de Bienestar Social)*

*- Informe de los servicios sociales: descripción detallada de la situación económica, social y laboral de la unidad convivencial, plan de intervención que se está elaborando y documentación acreditativa de todo lo expuesto. En todo caso, se deberá adjuntar certificado de titularidad o bienes (saldos, rendimientos, inmuebles...), ingresos actuales, copia del contrato de arrendamiento y, en su caso, recibo. Debe incluirse una **<u>valoración sobre la exclusión social</u>**, tal y como se indica en el Decreto 385/2013, de 16 de julio, por el que se aprueba el instrumento de valoración.*

**bat** sartu behar da, balorazio-tresna onartzen duen uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuan adierazten den bezala.

- **UDALAK SINATUTAKO KONPROMEZUA**

Urtebeteko abal ekonomikoa.

- Gizarte Ongizate Sailetik PROPOSATZEN da **Etxebizitza-premia bereziko egoeran dauden kolektiboen** kasuan, ondorengoak izatea udalak esleipen zuzena ofizioz izapidetzeko onartutako irizpideak:

- **ESLEIPEN ZUZENA ESKATZEKO IRIZPIDEAK:**

1.- Etxebiden altan egotea

2.- Ordizian gutxienez 1 urteko errolda antzinatasuna izatea

3.- Elkarbizitza unitateko kideetako bat gutxienez hauetako profil bateko kide izatea:

- adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonak,

- gaixotasun mentala duten pertsonak,

- adingabeak beren kargura dituzten familiak

4.- Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan egotea: balorazio-tresna onartzen duen uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuan adierazten den bezala.

- Genero indarkeria biktimen kasuan:

i. Baldintza hori honako hauen bidez egiazta daiteke: epai judiziala, babes-agindua edo txosten soziala, biktimatzat hartzeko eskaera egin baino bi urte lehenago emandakoak.

ii. Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatuta egotea.

- ***COMPROMISO FIRMADO POR EL AYUNTAMIENTO***

*Un año de aval económico.*

*- Desde el Departamento de Bienestar Social SE PROPONE que, **en el caso de colectivos en situación de especial necesidad de vivienda,** los criterios aprobados por el ayuntamiento para la tramitación de oficio de la adjudicación directa sean los siguientes:*

- ***CRITERIOS DE SOLICITUD DE ADJUDICACIÓN DIRECTA:***

*1.- Estar de alta en Etxebide*

*2.- Tener al menos 1 año de antigüedad de empadronamiento en Ordizia*

*3.- Que al menos uno de los miembros de la unidad convivencial pertenezca a alguno de los siguientes perfiles:*

*- personas con discapacidad intelectual y del desarrollo,*

*- personas con enfermedad mental,*

*- familias con menores a su cargo*

*4.- Encontrarse en riesgo de exclusión social, en los términos del Decreto 385/2013, de 16 de julio, por el que se aprueba el instrumento de valoración.*

- *En el caso de las víctimas de Violencia de género*

*i. Este requisito podrá acreditarse mediante sentencia judicial, orden de protección o informe social emitido dos años antes de la solicitud de reconocimiento como víctima.*

*ii. Estar inscrito en el Registro de Solicitantes de Vivienda.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

iii. Eskaera gizarte-arloko zinegotzi arduradunak edo emakumea bizi den udalerriko alkateak edo dagokion foru-aldundiak sinatu behar du.

*iii. La solicitud deberá estar firmada por el concejal o concejala responsable del área social o por el alcalde o alcaldesa del municipio de residencia de la mujer o por la diputación foral correspondiente.*

iv. Egiaztatu behar duzu harrera-etxebizitza baten erabiltzailea zarela, egonaldi-denbora bete duzula eta ezin izan duzula beste etxebizitzarik lortu.

*iv. Debe acreditar que es usuaria de un piso de acogida, que ha cumplido su tiempo de estancia y que no ha podido obtener otro piso.*

v. Gizarte-zerbitzuen txosten tekniko bat erantsi behar da, emakumearen egoera pertsonalari, adostutako esku-hartzeari eta etxebizitza-egoerari buruzko erreferentziak jasoko dituena.

*v. Se deberá adjuntar un informe técnico de los servicios sociales que recoja las referencias a la situación personal de la mujer, a la intervención acordada y a la situación de la vivienda.*

vi. Ustezko erasotzailearekin elkarbizitza amaitu dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea: ezkontza edo izatezko bikotea osatu bada: dibortzio-epaia edo erregistrotik baja ematea. Salbuespenez, dibortzio-demanda onartzen da.

*vi. Presentación de la documentación acreditativa del cese de la convivencia con el presunto agresor: en caso de matrimonio o pareja de hecho: sentencia de divorcio o baja registral. Excepcionalmente se admite la demanda de divorcio.*

vii. Gainerako interesdunek errolda-agiria aurkeztu beharko dute.

*vii. Los demás interesados deberán presentar el volante de empadronamiento.*

viii. Interesdunak errentamendu-kontratua sinatzen badu, ustezko erasotzailearekin bizi ez den egoeran jarraitu beharko du kontratua amaitu arte. Bestela, errentamendu-kontratua suntsiarazteko arrazoia izan daiteke.

*viii. Si el interesado suscribe el contrato de arrendamiento, deberá continuar en la situación de no convivencia con el presunto agresor hasta la finalización del mismo. En caso contrario, podrá ser causa de resolución del contrato de arrendamiento*

<u>Eztabaida</u>

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

<u>Alkateak</u> adierazten du: badago graziazko aukera bat, zeren ez dago arauturik, alkateak udalaren izenean

*<u>El alcalde</u> señala que existe una opción de gracia, ya que no está regulada la posibilidad de que solicite, en nombre del*

Etxebideri eskatzeko esleipen zuzena errentan dauden babes ofizialeko etxebizitzetan zeintzuk zaurgarritasun egoeretan dauden jendeak eskatzen duen. Egia da Etxebidekoak askotan jendeari adierazten dietela alkateari zuzenean eskatzeko. Guk gizarte zerbitzuetatik bideratu dugu gaia, baina ez dago araututa zein irizpideen baitan eman behar diren. Orain arte behin edo bi alditan erabili izan dugu, eta irizpide objetibo batzuk falta zitzaizkigun aukera hori emateko. Zeren letra xehea dago horrelako egoera ematen denean ere, hau da, udalak esleipen zuzena eskatzen duenean udalak beragain hartzen du ardura hau: urte betez erabiltzaileak ordainketaren bat egiten ez duen egoeran, ordainketa hori udalak beregain hartzen du. Hori dela eta gizarte zerbitzuetatik zuhurtziarekin ibiltzen dira. Gizarte zerbitzuetako koordinatzaileari beste udaletan zegoen kasuistika aztertzeko eskatu nion, zenbat erabiltzen den edo zenbat egoera dauden horrelakoak. Aintzat izan behar da zaurgarritasun egoeran daudela denak, eta gure bezeroak direla eta larrialdietako laguntzak jasotzen dituztela, eta alokailuzko laguntzak jasotzen dituztela.

*Ayuntamiento, la adjudicación directa a Etxebide de las viviendas de protección oficial que se alquilan a personas en situación de vulnerabilidad. Es cierto que desde Etxebide se informa a menudo a la gente de que deben solicitarla directamente al alcalde. Hemos derivado el tema a los servicios sociales, pero no se regula qué criterios se requieren. Hasta ahora lo hemos utilizado una o dos veces y carecíamos de criterios objetivos para dar esta oportunidad. Porque existe una pequeña cláusula que incluso cuando se da esta situación, es decir, cuando el ayuntamiento solicita la adjudicación directa, asume la responsabilidad de que, si el usuario no realiza algún pago durante un año, éste sea asumido por el ayuntamiento. Por eso, desde los servicios sociales actúan con prudencia. Le pedí a la Coordinadora de servicios sociales que estudiara los casos prácticos existentes en otros municipios, cuántos se utilizan o cuántas situaciones hay. Hay que tener en cuenta que todos se encuentran en situación de vulnerabilidad y que son nuestros usuarios y reciben ayudas de emergencia y ayudas al alquiler.*

Irizpideak igorri dizkizuet, Tokiko Gobernu Batzordean eta bozeramaile orok ezagutu behar duzuela uste dudalako, horregatik dekretua ez dago sinatuta.

*Os he remitido los criterios porque creo que debéis conocerlos tanto los componentes de la Junta de Gobierno Local como los portavoces, por eso no se ha firmado el decreto.*

Badaude kasu batzuk eztabaidarik ez dutenak, adibidez, genero indarkeria edo terrorismoko biktimak. Baina bada kasu bat, gizarte bazterkeria egoeran egotea eskatzen dena. Eta guk jarri dugu, bizitza unitatean egotea: adimen edo garapen ezgaitasuna duten pertsnak, gaixotasun mentala, guraso bakarreko familiak, genero indarkeriaren biktimak, edo legez dibortziatu edo

*Hay casos en los que no hay controversia, como la violencia de género o las víctimas del terrorismo. Pero hay un caso en el que se requiere estar en situación de exclusión social. Y hemos establecido la permanencia en la unidad de vida: personas con discapacidad intelectual o del desarrollo, enfermedades mentales, familias monoparentales, víctimas de violencia de género,*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

banandauak daudenak Horiek goitik jarri diren irizpideak dira, ondoren, udal mailan, ezarri ditugu: eskaera formala egitea zinegotzi edo alkateak, eta txosten bat egitea.

*divorciadas o separadas legalmente. Éstos son los criterios planteados desde arriba, a continuación, a nivel municipal hemos añadido: petición formal por parte del concejal o alcalde y elaboración de un informe.*

Hau edozein unetan aldatu ahal izango dugu. Ikusiko dugu nola doan, baina badugu partida familiei dirulaguntzak izenarekin, zeina erabiltzen den arauturik ez dauden egoeretan laguntza berezi batzuk emateko (40.000 euro daude ezarrita kontingentzietarako). Jonek planteatzen du hortik tira egitea. Printzipioz ez dugu uste ordainketa ezak denboran iraungo zuketenik zeren etxebizitza horretan egoteko aukera ere galduko lukete. Irizpideen onarpena dekretu bidez egitea planteatu zuen Jonek, ez baita erregelamendua, baina bai langileek aintzat izan behar dituzten irizpide zehatzak. Urte bete barru erabilpenaren inguruko balorazioa egin beharko dugu.

*Podemos modificar esto en cualquier momento. Veremos cómo evoluciona, pero tenemos una partida denominada “subvenciones a familias”, que se utiliza para brindar ayuda especial en situaciones no reguladas (40.000 euros para imprevistos). Jone planta, tirar de ahí. En principio, no creemos que la falta de pago vaya a durar en el tiempo porque también perderían la posibilidad de estar en esa vivienda. Jone planteó que la aprobación de los criterios se haga por decreto, ya que aunque no es un reglamento, pero se deben recoger criterios concretos que los trabajadores deban tener en cuenta. Dentro de un año tendremos que hacer una valoración sobre el uso.*

<u>Idazkariak</u> adierazten du erregelamendu itxura ikusten dio Dekretua baino, eta gainera kontuhartzailearen txostena behar duela.

*<u>La Secretaria</u> manifiesta que le ve más un aspecto de reglamento que un Decreto y que además necesita informe del Interventor.*

<u>Alkateak</u> adierazten du teknikarien artean hitz egin beharko duzuela. Berez gaur ez da erabakiko, eta erregelamendu forma izan behar badu emango zaio. Gaur ekarri da alde zeundeten jakiteko, gero onarpen prozedura adostuko da.

*<u>El alcalde</u> indica que tendrán que hablar entre los técnicos. Por ello hoy no se decidirá, y si tiene que tener forma de reglamento se le dará. Hoy se ha traído para saber si estaban a favor, luego se acordará el procedimiento de aprobación.*

<u>Idazkariak</u> errepikatzen du erregelamendu izaera izan behar duela uste duela, eta partida batean den dirua konprometitzen bada kasu hauei aurre egitera kontuhartzaiearen onespena beharko lukeela.

*La Secretaria reitera que entiende que debe tener carácter de reglamento y que si el dinero que hay en una partida se compromete a hacer frente a estos casos debería contar con la aprobación del interventor.*

<u>Alkateak</u> adierazten du ikusiko dela beste herrietan nola egiten den, baina bermeak jartzen ditugunean ez dugula kontuhartzailearen txostenik eskatzen.

*<u>El alcalde</u> señala que ya se verá cómo se hace en otros pueblos, pero cuando ponemos garantías o avales no pedimos ningún informe del interventor. Creo que*


Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Zuek juridiko tekniko aldetik argitu beharreko gaia dela uste dut.

*es una cuestión que desde el punto de vista jurídico técnico se tienen que aclarar.*

<u>Ana Sanchezek</u> esan du: kasuetan araudi bat egiteko aukera baloratu beharko litzatekeela. Kasuak gertatuko dira, beste kontu bat da maila juridikoan araudi baten bidez arautuko den.

*<u>Ana Sánchez</u> comenta: que en los casos se dice que se debería de valorar la posibilidad de realizar una normativa. Los casos se van a dar, otra cosa es si a nivel jurídico se va a regular mediante una normativa.*

Bi gaik atentzioa eman didate testua irakurri ondoren. Batetik, alkatearen edo zinegotziaren txostena behar da, pertsona horren egoera islatzeko, eta, batez ere, dibortziatuen eta banandueen kasuan, baina, ondoren, hurrengo paragrafoan argitzen da. Baina ez zait erabat argi geratu, agian gaztelaniazko idazketa edo itzulpena da.

*Me han llamado dos temas la atención después de leer el texto. Una es que se requiere de informe de alcalde o concejal donde se refleje la situación en la que se encuentra esa persona, y sobre todo en los casos de divorciados y separados, pero después se aclara en el párrafo siguiente. Pero no me ha quedado del todo claro, tal vez es la redacción en castellano o la traducción.*

<u>Alkateak</u> adierazten du Jonek itzuli du, nik eskatuta, eta jatorrizko testua euskarazkoa da. Ez dut itzulpena ikusi.

*<u>El alcalde</u> señala que ha sido traducido por Jone, a petición mía, y el texto original es en euskera. No ha visto la traducción.*

<u>Ana Sánchezek</u> komentatzen du: ez dut ulertzen lehenengo puntua euskaraz esaten denean ondo ulertzen da desgaitasun eta garapen kontzeptua. Garapen hori ez zait argi geratzen, bigarren orrialdean jasota dago.

*<u>Ana Sánchez</u> comenta: no entiendo el primer punto cuando se indica en euskera se entiende bien el concepto de discapacidad y desarrollo. Ese “desarrollo” no me queda claro. Está en la página dos.*

<u>Alkateak</u> adierazten du: galdetuko diogu baina beraiek erabiltzen dituzten kontzeptuak dira, eta ziurrenik gizarte zerbitzuetan tasaturik duten kasuetako bat da, baina hobeto galdetzea. Hala eta guztiz, nola kontsulta juridikoa egin behar den, kontu emanda bezala uzten dugu eta argituko dute. Kasuak ematen dira, baina ohikoa da alkatearekin hitzordua eskatzea Etxebiden esan diotelako alkateak eskatzen badu badutela etxe bat. Horregatik gizarte zerbitzuekin hitz egin dut, zeren, geroz eta jende gehiagok eskatzen dit hitzordua. Zuek ere galdetu zuen alderdietako udaletan, zeren agian

*<u>El alcalde</u> responde que se lo preguntaremos pero son conceptos que ellos utilizan, y seguramente es uno de los casos que tienen tasado en servicios sociales, pero mejor preguntar. Sin embargo, tanto si hay que hacer una consulta jurídica, dejamos el tema como dado de cuenta y ya lo aclararán. Se dan casos, pero es habitual pedir cita con el alcalde porque en Etxebide les han dicho que si el alcalde lo pide tendrán una casa. Por eso he hablado con los servicios sociales, porque cada vez más gente me pide cita. Vosotros también preguntad en los ayuntamientos de vuestros partidos, porque tal vez tienen más desarrollado el tema.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

garatuagoa dute gaia.

Ana Sánchezek esan du, adibidez, garapen kognitibo gisa ulertuz gero, pertsona batzuk, adibidez ikusmen desgaitasuna dutenak, ez liratekeela kontzeptu horren barruan sartuko. Eta desgaitasunaren % 33ra iristen den jendeaz ari naiz, baita % 70era iristen denaz ere, baina desgaitasun intelektuala duten pertsona gisa katalogatuta ez daudenez.

*Ana Sánchez comenta: que por ejemplo si se entiende como desarrollo cognitivo, algunas personas, por ejemplo con discapacidad visual, no entrarían dentro de este concepto. Y hablo de gente que llega al 33% de discapacidad e incluso al 70%, pero que no están catalogadas como personas con discapacidad intelectual.*

Alkateak dio: Jonek adierazi du ongi izateko memoria irailean izango dela, eta bera etortzen da aurkeztera. Beraz, iraileko Herritarren batzordean edo beste bilera batean azalduko da.

*El alcalde señala que Jone dice que la memoria de bienestar se presentará en septiembre y ella viene a presentarla. Por lo tanto, se explicará en la comisión ciudadana de septiembre o en otra reunión.*

**Jakinaren gainean geratu da Batzarra.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4.- Ekaineko kudeaketa txostenak (2025A0010012)**

***4.- Informes de gestión de junio (2025A0010012)***

2025eko ekaineko kudeaketa txostena aurkezten da.

*Se presenta el informe de gestión de junio de 2025.*

Alkateak adierazten du antolaketakoek 3 hilabetean behin txostena aurkezteko eskaera egin dutela, eta, lurraldekoek jada marko orokorra finkatu dutela. Azkenik, Herritarren kasuan, zailtasunak daude txosten bateratua egiteko gaiak oso ezberdinak baitira, baina horretan daude.

*El alcalde señala que se ha solicitado por parte de organización la posibilidad de presentar el informe trimestralmente, y que los de territorio ya han fijado el marco general para el informe. Por último, en el caso de la Ciudadanía, existen dificultades para elaborar un informe conjunto ya que los temas son muy diferentes, pero están en ello.*

**Beraz Tokiko Gobernu Batzordea jakinaren gainean geratzen da.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**5.- Zenbait txosten eta eskaera**

***5.- Informes y solicitudes varias.***

Alkateak adierazten du honakoa: Maitane arduraturik zegoen eta baja hartu aurretik, nahiz eta bere ardura ez izan, teknikariarena baizik, zerbitzuetako aktak eta jarraipenak txukuntzen jardun du. Horregatik deialdian sartu zituen Maitanek eta igorri zaizkizue. Ea orain bera ez dela, nola egiten ditugun, eta zorrotz jartzen garen egoki lan egin eta informazioa izateko.

*El alcalde indica que Maitane estaba preocupada y que antes de causar baja, aunque no era su responsabilidad sino la del técnico, se ha dedicado a pulir las actas y seguimientos de los servicios. Por eso Maitane los incluyó en la convocatoria y se os han remitido. A ver ahora que no está ella, cómo lo hacemos, y a ver si nos ponemos rigurosos para trabajar correctamente y tener la información adecuadamente.*

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**6.- Galde-erreguak**

***6.- Ruegos y preguntas.***

Ana Sánchezek galdetu du: helarazi al diozue Hondarribiko Udalari bideo akten itzulpenari buruzko informazio-eskaera?

*Ana Sánchez pregunta: ¿habéis traslado la petición de información al Ayuntamiento de Hondarribia sobre tema de la traducción de las video actas?*

Alkateak adierazten du bihar kontuhartzailea dator, David, eta berari galdetuko diogu

*El alcalde dice que mañana viene el interventor, David, y le preguntaremos a él.*

Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

*Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la Secretaria, certifico.*

| **Sinatzaileak** Firmantes | **IDAZKARIA /** SECRETARIA<br>Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave |
|---|---|
| | **Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:** / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAARVHNT.PoG4 |